

noaua

**Zumarte Musika
Eskolan matrikulatzeko
epea ostiral honetan
amaituko da**

**Aginagako ur zikinak
saneamendu sarera
batzeko lehen urratsa
eman da**



**Auzoa biziberritzeko plana
abiarazi dute Santuenean**

**AITZAGA
TABERNA**

BETI AURRERA BEGIRA

**ORAIN 22:00AK ARTE
IREKITZEN DUGU!**

IRAZU KALEA 12, USURBIL

nooqa

jarraitu gure sare sozialak

facebook Instagram

twitter nooqa

www.nooqa.eu

**USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA**
CIFP USURBIL LHII

AURREMATRIKULA

Maiatzak 31 - Ekainak 18

Administrazioa eta Kudeaketa

Energia eta Ura

Instalazioa eta Mantenua

Fabrikazio Mekanikoa

Elektrizitatea

**STEAM
ERASMUS +
DUAL
ETHAZI
Lan Poltsa
Bolsa de Trabajo**

Hartu hitzordua!!!

943 364600

www.lhusurbil.eus

Albisteak iruditan

Sendabelarren inguruko tailerra Santuenean

Aitzinean, sendabelarrak sarri erabiltzen ziren baserrietan denetariko minak eta gaixotasunak sendatzeko. Ohitura horiek pixkanaka galduz joan dira, eta belaunaldi arteko etenaldi horri erremedioa jartzeko, Santuenean tailerra egin zuten denetariko produktuak egin, belarren onurei buruz hitz egin eta erabilerak ezagutzeko.

Hamabost bat lagun elkartu ziren Santuenea Elkartearen sendabelarrei buruz ikasteko asmoz. Belaunaldi anitzetako jendea elkartu zen, eta bakoitzak bere jakintzak gainontzekoekin partekatu zituen. Gure mendi eta basoetan erraz aurki daitezkeen belarretatik abiatu, eta lehenengo ezagutza proba egin zuten, belar bakoitzarentzat erabiltzen diren izenak jakin nahian. Askok etxean ematen dizkieten erabilerak partekatu zituzten besteekin, dela janaria prestatzeko, dela minak sendatzeko.



Hamabost bat lagun elkartu ziren Santuenea Elkartearen sendabelarrei buruz ikasteko asmoz.

Teoriatik praktikarako jauzia ere egin zuten parte hartzaileek. Ukenduak, olioak eta xaboiak egiteko teknikak ezagutu eta ahal izan zuten neurrian beraiek

sortu zituzten produktuak.

Ostiral honetan arratsaldeko 18:00etan beste saio bat egingo dute. Izena emateko deitu 670 027 731 telefono zenbakira.

Laburrean

Eremu horira igaro da Usurbil

Kasuen beherakadarekin 206,09raino murriztu zen aste hasieran 100.000 biztanleko 14 eguneko koronabirusak Usurbilen duen intzidentzia.

Eremu laranjatik horira igaro da udalerrri hau.

Covid-19a dutenentzat, hondakinen biltzeta berezia

Covid-19a duen norbait izanez gero etxean, Atez Ateko bulegora deitzea eskatzen du Udalak (900 776 776), hondakinak aparte biltzeko. "PCR probaren lehenengo emaitzaren zain bazaude, ez atera hondakinik", eskatzen du Udalak.

Azken ostiraleko elkarretaratzea

Ostiral honetan, maiatzak 28, euskal presoen eskubideen aldeko elkarretaratzea egingo da. Usurbilgo Sarek deitutako biltzeta Mikel Laboa plazan egingo da, hilero moduan, arratsaldeko 20:00etan hasita.

noaia

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldekoa, 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkarte@noaia.eus /// www.noaia.eus
Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkari koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Idazkaria: Alaitz Aizpurua.
Diseinua: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:
Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaia.eus

Banaketa: Iñaki Irazusta,
Iban Maritxalar.
Tirada: 2.930 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Harremanetarako:
erredakzioa@noaia.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Usurbilgo Udala

Euskal Herrerria!




Luis Aranalde

Sapiens

Amaitu berria dut “Sapiens, de animales a dioses” liburua. Oso idazki gutxik harrapatu nau Yuval Noah Harari-renak hainbat. Ia bostehun orrialde baditu eta eleberri gisa irakurri dut: hizkuntza soilaz, xehiaz, baliatzen da gizadiaren peripezia luzea bezain harrigarria kontatzerakoan. Hamar milioi ale saldu ditu jadanik. Hizkuntza pilo batera itzulia izan da.

Harari Israelen jaio zen 1976an. Tipo berezia da, baina zentzu onenean. Era askotara definitu dute: filosofo futurista, Silicon Valleyko (AEBetako teknika aurreratuena mundua) gurua, kontenplalaria. Begetarianoa da, telefono zelular edo mugikorrik gabe bizi da, ateo militantea. Homosexuala da eta bere bikotearekin bizi da. Dioenez, bere homosexualitateak laguntzen dio inguruko errealitatea behatzen distantzia apur batekin. Egunean bi ordu dedikatzen dizkio meditazioari, urtean bi hilabete pasatzen ditu isiltasun osoan.

Big bang leherketatik hasi eta gaurko iraultza teknologikoa arteko historia labur bat kontatzen du lehen zatian. “Izarren hautsa egun batean/bilakatu zen bizigai/, hauts hartatikan uste gabean/giñaden gu ernai”, Xabier Leitek kantatzen zuen bezala.



“Yuval Noah Harari Israelen jaio zen 1976an. Tipo berezia da, baina zentzu onenean”.

LUIS ARANALDE

“Eboluzioaren azken etapa da Homo Sapiens ala aro berri baten hasiera?”

Hamalau mila milioi urte dira eztanda hura gertatu zenetik. Lehen hominidoak duela hiru lau bat milioi urte agertu ziren lurrean eta homo sapiens duela 150.000 mila urte. Hiru iraultza nagusi azpimarratzen ditu Hararik: ezaguerarena duela 70.000 urte, nekazariena duela 12.000 urte eta zientziarena duela 500 urte.

Sapiens (jakintsu) izena jarri zioten gure giza espezieari, besteak baino jakintsuagoak gine-la ustetan. “Geure burmuinak gaitasun harrigarriak eman dizkigu, ematen dizkigu, onerako zein txarrerako, kreaizale zein suntsizale izateko, senide bihozbera nahiz nagusi bihozgabe”, zioen filosofo batek duela gutxi.

Gure aurrerapen teknologikoei nora garamatzaten eta noraino iritsi daitezkeen aztertzen du bigarren zatian. Giza Burmuina Proiektua sortu zen 2005ean. Jakintsu hauek espero dute sartzea giza burmuin bat osoa ordenagailu batean eta zerebro artifizial hori gai izango omen da gizaki gisa jokatzeko. Hamarkada pare bat eta dirua behar dute balentria hori burutzeko.

Posibilitate harrigarri bezain kezagarri horien aurrean, galdera piloa egiten dizkio Hararik bere buruari. Galdekizun horiei ezin die erantzun zientifikoek eta teknikoek bakarrik, ikuspegi zabalago batetik saiatu beharra dago. Hauek dira bere buruari eta guri egiten dizkigun galderetako batzuk: zein da azkenean gure identitatea? Eboluzioaren azken etapa da Homo Sapiens ala aro berri baten hasiera? Zertan bihurtu nahi dugu teknologia berri

hauekin? Inoiz baino botere gehiago daukagu, baina bala dakigu zer egin ahalmen horrekin? Askotan gure sozio animaliak eta ekosistemak suntsitu besterik ez dugu egiten, eta hori, dibertimenduz. Eta gure izaera osoa manipulatu dezakegunez, zertan bihurtu nahi dugun galdetu beharko digu geure buruari, ezta? Gizaki arruntok kondenatuak izango ote gara super-gizakien eskututa baten esklabo izatera? Edo gure espezie osoa izango ote da berak sortutako eta bera baino ahaltsuago bilakaturiko organismo bizidun, ciborg edo roboten biktima? Ez jakin. Oraindik gure esku dago aukera: denok bizi ala denok hil.

Marko etiko zabal bat sortzea izango da erronkarik handiena une honetan. Hausnartzea ez da nahikoa. Aditu batzuen esanetan ez daukagu behar den etikarik horrenbeste zientzia eta teknikarentzat. Zientzialariek, filosofoek eta teologoek elkartu behar lukete gai hau jorratzeko. Aurrerapen zientifiko berriekin ezin dute saihestu etika. Inoiz ez dute sakrifikatu behar pertsonaren duintasuna eta libertatea. Jokoan dagoena ez da giza biziaren aldaketatxo bat, gizadiaren zentzua eta destinoa baizik. Giza eskubideen aktibistak jo eta ke ari dira etika arlo honetan.

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpirotz Eizmendi

Ugaitz Agirre Zapirain

Luis Aranalde



txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Patxi
Patriketa
Iatetxea

· bazkariak EGUNERO
· afariak ostegunetik larunbatera

© 943 362725 · © 688 690 361

Eusko Jaurlaritzaren aitortza Usurbili

A raba, Bizkaia eta Gipuzkoako 21 udalerriek, tartean Usurbilek, udaletatik energia- eta klima-trantsizioaren alde lan egiteko konpromisoa berretsi zuten iragan astean, Donostiako Miramar jauregian. Tokiko erakunde guztion ahalegina aitortu zien Eusko Jaurlaritzak.

Klimaren eta Energiaren aldeko Alkatetzen Itunarekin bat egina duten EAE-ko 21 udalerririk eremu honetan eginiko ahalegina aitortu zien Eusko Jaurlaritzak. Udalerriotako bat Usurbil dugu eta udalerririk honen izenaren Agurtzane Solaberrieta Mesa alkateak diploma jaso zuen, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen sailburu Arantxa Tapiaren eskutik. Besteak beste, Atez Ateko bilketa, edota uraren kudeaketa



Agurtzane Solaberrieta Mesa alkateak Eusko Jaurlaritzako sailburu Arantxa Tapiaren eskutik jaso zuen diploma.

goraipatu ditu Gasteizko gobernuak.

“Klima-aldaketa eta trantsizio energetikoa lortzeko bidean, Usurbil energia kontsumoa murrizten eta energia berriak ezartzen ari da; uraren kudeaketa hobetzen ari da eta kontsumoa murrizten. Halaber, hondakinak Atez Ateko zerbitzuaren bidez

kudeatzen ari da, baliabide bihurtzeko. Ingurumen- eta hiri-gintza-plan batzuk gauzatzen ari dira, Usurbil jasangarria lortzeko helburuarekin”, nabarmendu du Jaurlaritzak.

Glasgowko goi-bilerara begira Usurbil, klimari eta energiari dagokionez abangoardian dauden 21 udalerrien artean

kokatu du Jaurlaritzak, Abanto-Zierbena, Amurrio, Balmaseda, Basauri, Bilbo, Donostia, Durango, Eibar, Errenteria, Hondarribia, Irun, Ispaster, Legazpi, Mungia, Muskiz, Oñati, Portugalete, Sestao, Tolosa eta Gasteizekin batera.

Guztiak, Usurbil barne, mundu mailako Alkateen Klima eta Energia Itun handienaren kide dira. Munduko 61 herrialdeetako 10.000 tokiko eta eskualdeetako erakundeek baino gehiagok parte hartzen dute “eta, beren borondatez, klimaren eta energiaren nazioarteko helburuak ezartzeko konpromisoa hartzen dute”. Miramarreko ekitaldia, azaroa hasieran Glasgown (Eskozia) ospatuko den Nazio Batuen Klimaren goi-bilerara begira eginiko “prestakuntza-jardueretako bat” izan zen.

Ika-mika

Usurbilgo erreken aukerak eta bazterrak

Lerro hauen bidez, Anerreka Elkarteak kideok eskerriak eman nahi dizkiegu Arkaitzerrekarako martxan eta Aranerekako garbiketaren parte hartu duzuenoi eta animatu eta lagundu diguzuenoi. Pozgarria izan da zuen laguntza sentitzea, baita zuen interesa eta laguntzeko prestutasuna ere. Atsegingarria da lau pertsona baino gehiago garelako sentitzea, helburu bera duen komunitate bat ordezkatzen dugula.

Bi ekintza hauen helburu nagusia gure ingurumenaren

altxorren zati baten kontzientzia berreskuratzea izan da; Usurbilgo errekek. Egia esan, dena ez da polita izan: arrainak bakarrik ikusi ditugu frontoian marraztuta. Eta hori –ohikoa bihurtzen ari den arren– ez da normala: Arkaitzerrekan inoiz martxan jarri behar ez zuten erraustegiak hil ditu.

Eta Aranerekan zer? Alde batetik, ulertezina da herritik bi kilometroa jaiotzen den erreka inoiz gardena ez izatea. Bestetik, parke bat eta pasealeku bat egitea ondo legoke, baldin

eta gizakiaren eta naturaren arteko bizikidetzaren harremanak sustatuko balira. Parkea sortzeko erreken ertzak eta ura garbiak eta seguruak mantentzeko konpromisoa dakar; haurrak erakartzeko gune bat sortzen baduzu, naturaltasunez bere uretan sartuko direla aurrerikusi behar duzu. Izan ere, kezkatuta gaude Aranerekako parkearen inguruan oraindik ere ur beltzak isurtzen direlako, amiantoa aurkitu dugulako eta Ugartondoko etxebizitzek errekari eragin diezaioketelako.

Herria zeharkatzen duelako, Aranerekako aukera paregabea da: errekek merezi duten babesa eta errespetuzko jokaerak sustatzeko, bere inguruan sortzen den bizitzaren kontzientzia izateko (landareak, animaliak...), ekosistema bereko parte garelako sentitzea; amalurra.

Hurrengo erronka: Arkaitzerrekan aingirak ikusteko eta Aranerekaren ur gardenetan freskatzeko irteerak antolatzeta.

Anerreka Ingurumen Elkartea

EROSKI city
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182

ERAMATEKO!!!

· EGUNEKO MENUA
· KARTA

ARTZABAL (ESKANEATU OR KODEA IKUSTEKO)

BASERRIA · JATETXEA

www.artzabaljatetxea.com 943 36 91 39

JUANTXO
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8
943 370 008

“Santuenea bizigarriagoa izan dadin”

Zer nolako Santuenea nahi dugu? argitzeko parte-hartze prozesu bat abiaraziko du Udalak. Auzoa biziberritzeko plan bat osatuko dute, auzotarrek elkarlanean. Hiritik At kooperatibak koordinatuko du prozesua eta ekainean abiatuko da.

Herrigunea ez ezik, Usurbilgo herri-auzoak ere bizigarriak izan daitezke nahi du udal gobernuak. Lur Etxeberria zinegotziak azaldu zuenez, “aurreko legealdian Aginagan izan ginen. Legealdi honetan ere zenbait urrats egin ditugu norabide horretan: Zubietan, Txokoalden eta Kalezarren izan gara, eta orain Santuenera gatzoz”.

Iraganean auzo asko modu bertsuan eraiki ziren: “eraikuntzak ez ziren isolatzen, igogailurik ez zen jartzen eta irisgarritasunak ez zuen gaur duen garrantziarik”, Lur Etxeberriak nabarmendu zuenez. Parte-hartze prozesu honen helburua da Santuenearentzat auzo-plan bat egitea, “bertako biztanleen egunerokoa nabarmen hobetuko duen esperantzarekin”.

Elkarteen inplikazioa

Auzotarren ekarpenak funtsezkoak izango dira. Santueneko hiru elkartetan onartu dute prozesuan parte hartzea: Jai Bartzordeak, Jubilatuen Elkarteak



Ekainetik aurrera auzo-plan bat egingo da Santuenearentzat, “bertako biztanleen egunerokoa nabarmen hobetuko duen esperantzarekin”.

LUR ETXEBERRIA

“Eskerrak eman nahi dizkiet auzotarrei prozesu honetan parte hartzeko erakutsi duten borondateagatik. Guztion artean Santuenea bizigarriago bat lortzea espero dugu”

eta auzoko Kultur Elkarteak.

Europako laguntzei begira

Testuinguru ekonomikoa ez da ona baina Udalak ez du hori aitzakia gisa baliatu nahi. “Covid-19ak eremu guztietan era-

gin du, baita Udalean ere, eta horrek erabat baldintza dezake udalaren ekiteko gaitasuna”, azaldu zuen Lur Etxeberriak. “Dena den, Santuenea bizigarriago baten alde lan egiteko konpromisoa du udal gobernuak. Europako Batasuna banatzeko den Next Generation laguntzak bete-betean egiten du bat Santuenean egin nahi dugunarekin, auzoak integralki berronertzeko zein etxebizitzak birgaitzeko proiektuak diruz laguntzeko lerroak zehaztu baitituzte. Hortik dirurik iristen bada, Santuenera bideratuko dugu”.

Ekainean hasiko da parte-hartze prozesua

Lur Etxeberriak maiatzaren 20ko agerraldian aditzera eman zuenez, dirulaguntza horiek jaso ahal izateko beharrezkoa da etxeko lanak eginda izatea, eta horregatik ekingo diote ekainean parte-hartze prozesuari. Auzotarrei eskerrak emanez amaitu zuen bere azalpena: “Udalaren aldetik, eskerrak eman nahi dizkiet auzotarrei prozesu honetan parte hartzeko erakutsi duten borondateagatik. Guztion artean Santuenea bizigarriago bat lortzea espero dugu”.

Aldagai sozial, kultural eta komunitarioen garrantzia

Tokiko garapena sustatzeko espazio, prozesu eta estrategiak sortzen dituen kooperatiba multidiziplinarra da Hiritik At.

Santuenea auzoan birgaitze integral bat egin nahi da. “Espazio publikoak, etxebizitzak, ekipamenduak eta

abar hobetzeaz gain, aspektu sozialak, kulturalak eta komunitarioak hartuko ditugu kontuan”. Horretarako auzo-plan bat garatuko dute.

Bi dimentsioko auzo-plana

Iker Eizagirre Hiritik At kooperatibako kideak aditzera eman

zuen, “bi dimentsio izango ditu auzo-planak”.

Batetik, eztabaida-prozesu ireki bat jarriko da martxan. Zer nolako Santuenea nahi dugu? galderatik abiatuko dena.

Horrelako hausnarketez haratago, agenda jakin bat zehaztuko dute. “Plan estrategiko

bat izan daitekeena. Ekintza konkretuetara eramanez behar dira proposamenak, nola egin finantziagarri... Eta hori dena Usurbilgo testuinguru orokorrera lotu behar da”. Eztabaida fasean zein ekintza planean, Hiritik At kooperatibak gidari lanak egingo ditu.

“Ekimena oso erakargarria da, auzoarentzat zein auzotarrentzat”

Udalak sustatu eta Hiritik At kooperatibak bideratuko du parte-hartze prozesua. Auzotarren ekarpenak, bistan da, ezinbestekoak izango dira.

Maiatzaren 20ko agerraldian, hiru auzotarrek hartu zuten parte. Ainhoa Arrospidek azaldu zuenez, aspaldikoa da ekimen honen ernamuina. “Pandemiaren aurretik hainbat auzotar hasi ginen elkartzen. Kezkatuta geunden auzoak zitu beharrekin eta gabeziekin”. Udalari kezka hau helarazi zioten, trukean ekimen zehatz batzuk bideratuko zitu esperantzarekin. “Udalak aurkeztu digun parte-hartze prozesu hau ordea, askoz anbiziosoagoa da. Maila handiagoan eragin nahi du. Berri pozgarria izan da”.

Ainhoarentzat, prozesua bera bezain garrantzitsua da Udalak aurkeztu dien lan-eredua. “Gure hitza bertan egotea



“Gure hitza bertan egotea nahi dute”, azaldu zuten auzoko elkartearen ordezkariak. “Elkarteena nahiz auzotarrena”.

AUZOTARRAK

“Etorkizuneko Santuenea irudikatu ahal izango dugunez, aukera paregabea da guretzat eta probestu egin nahiko genuke”

nahi dute, auzoko elkarteena nahiz auzotarrena”. Etorkizu-

neko Santuenea irudikatu ahal izango dutenez, “aukera paregabea da guretzat eta probestu egin nahiko genuke”.

Maribi Arrospide auzotarra ere iritzi berekoa da. Ekainean abiatuko da parte-hartze prozesua baina hartuemanak lehenago hasi ziren. “Hiru bilera egin ditugu udaletxeokoin. Hiru elkarte izan gara bilera

horietan, Santueneko Jai Batzordea, Jubilatuen Elkarte eta Kultur Elkarte”. Bilkura horiek eman dutenarekin pozik daudela azaldu zuen Maribik.

“Gure arteko harremanak landu ahal izango ditugu”

Ainhoa eta Maribirekin batera, Xabier Ibarra izan zen aurkezpen ekitaldian. Jai Batzordearen izenean hartu zuen hitza eta “aukera hau aprobetxatu nahi dugu”, azaldu zuen, “oso erakargarria dela iruditzen zai-gulako. Auzoarentzat zein auzotarrentzat. Honi esker, gure arteko harremanak landu ahal izango ditugulako”.

Zubi bat armarrarian

Hastear den parte-hartze prozesuak irudi bat izango du. Auzoaren armarraria dirudien logotipoa. Xabierren esanetan, “logotipoan zubi bat agertzen da, zubiak elkartu egiten gaituelako. Auzotarrak gure artean; eta auzoa herriarekin”.

Parte-hartze prozesuak lau fase izango ditu

Iker Eizagirre Hiritik At-eko kideak aditzera eman zuenez, lau zatitan banatu dute parte-hartze prozesua:

Aurre-fasea (ekaina)

Santueneko auzo planak Usurbilgo testuinguru orokorra kontuan izan behar du (batik bat, HAPO-aren garapena), eta baita ere aurretik egin diren eta martxan dauden esku-hartze proposamenak ere. Testuingurua ezagutzeko bi saio antolatu dituzte:

■ Ekainaren 16an: HAPOa eta

auzo planaren aurkezpena auzokideekin.

■ Ekainaren 30ean: Santueneko irisgarritasun proiektuaren aurkezpen irekia.

Diagnostiko parte-hartzailea (iraila-urria)

“Entzute-fasea izango da, auzoan den jakintza metatua jasotzeko”. Online galdetegi bat egingo dute, baita talde elkarrizketak ere.

Garapena (urria-abendua)

Auzoaren lehentasunak defini-

tuko dituzte, behar nagusiak. Horiei erantzuteko konponbideak topatuko dituzte, eta planari begirako zehaztapen teknikoak landuko dira. Besteak beste, espazio publikoa, mugikortasuna, auzo ekonomia, zerbitzuak, zaintza, energia edota gobernantza bezalako eremuak landuko direla aurreikusitakoak dira.

Itzulpena (urtarrila)

Auzotarrentzat zein udalarentzat erabilgarria izango den auzo-plana osatu eta auzota-

rrekin kontrastatuko dute.

“Koordinaziorako lan-talde bat osatuko da”

Iker Eizagirreraren esanetan, “koordinaziorako lantalde bat sortuko da, Hiritik At-en lanari jarraipena egingo dio eta udalarekin harreman iraunkorra izango duena”. Prozesuan zehar sortutako materiala usurbil.eus web orrialdean txertatuko dute, prozesua hastearrekin batera propio sortuko den orrialde batean.

GHK-k pardelak birziklatzeko zerbitzua abiarazteko sinadura bilketa

Hainbat udalerriek egi-
ten duten moduan,
Gipuzkoako Hondaki-
nen Kontsorzioak (GHK) pixoi-
hialak eta higie-ne-produktuak
birziklatzeko zerbitzua abian
jar dezala eskatzeko sinadura
bilketari ekin dio Erraustegiaren
Aurkako Mugimenduak, agin-
tari politikoei edota erakundeei
galderak helarazteko aukera
eskaintzen duen osoigo.com
atariaren bidez. Honako galdera
helarazi dute: “Zergatik ez du
Gipuzkoako Hondakinen Kon-
tsorzioak (GHK) pardelak birzi-
klatzeko zerbitzuaren prozesua
abiatzen?”.

Erraustegiaren Aurkako Mu-
gimenduak Jose Ignacio Asen-
sio ingurumen diputatuari
zuzenduta, aipatu plataformar-
en bidez jakinarazi duenez,
“Gipuzkoako gizarteak badaki
pixoihialak eta produktu higie-
nikoak birziklatu daitezkeela.
Urrats hori eman nahi du eta
gauzak ondo egiten jarraitu,
gainerako hondakinekin egiten
duten bezala, mundu mailan



“Zergatik ez da pardelak birziklatzeko zerbitzuaren prozesua abiatzen?”.
Erraustegiaren Aurkako Mugimenduaren galdera GHK-ri zuzendua dago.

ESKAERA

**“Gipuzkoako
gizarteak badaki
pixoihialak eta produktu
higienikoak birziklatu
daitezkeela”**

hondakinak gehien eta ondoen
bereizten dituzten lurraldee-
tako bat baita. Horretan ere
nabarmendu nahi dugu”. Eska-
ria handitzen doanez, “erakun-
deek erantzun egin behar diete
gizartearen eskakizun horiei
eta klimaren larrialdi-egoeran

egonda, prozesuak bizkortu
egin behar dira”.

Pardelen muralak

Kanpaina hau sustatzeko bigar-
ren ekimen bat ere iragarri du
Erraustegiaren Aurkako Mu-
gimenduak. “Herri guztietan
mural txiki batzuk egin nahi
ditugu pardelekin, zenbat eta
herri gehiago presio handia-
goa”. Laguntza eskatu dute
sare sozialen bidez. “Zuon la-
guntza behar dugu hau zabal-
du eta erreferente bilakatuko
gaituen lurraldea izateko!!”.

“Naturklima” fundazioaren egoitza erraustegiaren ondoan ipiniko dute

Aurreikusia zuten moduan,
Zubietako erraustegiaren on-
doan kokatuko dute “Natur-
klima” Klima Aldaketaren
Gipuzkoako Fundazioaren
egoitza. Egunotan jarri du
Foru Aldundiak, Eskuzaitze-
tan kokatuko duten eraikin
berri honen “lehen harria”.
7.160.000 eurotan esleitu di-
tuzte obrak. 22 hilabeteko
epean amaitzea aurreikus-
ten dute. Honenbestez, 2023.
urtean inauguratzea espero
dute.

Eraikin berria “zero emi-
siokoa” izango dela berri
eman du Foru Aldundiak,
“jasangarrtasun irizpideen
arabera eraikia, material bir-
ziklatuak erabiliz, eta Passi-
vhaus kontzeptua (zero ener-
gia kontsumoa) txertatuko du;
horrela, erreferente bihurtuko
da Gipuzkoak jomuga duen
ekonomia berde eta deskar-
bonizatuaren azpiegitura ber-
rientzat”.

“Naturklima” funtsezkotzat
jotzen dute Eskuzaitzetan “in-

dustria polo berdea garatzeko,
ekonomia zirkularrean, tran-
sizio energetikoan eta klima
aldaketan espezializatutako
enpresen artean”. Bitarteko
gisa baliatu nahi dute aipatu
fundazioa, “Next Generation”
proiektuetarako Europako 200
milioi euroko funtsak kudea-
tzeko. Hiru urteko epean, “lur-
raldea sensorizatua izango
dugu klima aldaketaren inpak-
tu guztiak monitorizatzeko”,
iragarri dute Gipuzkoako Foru
Aldunditik.

Txikierdi-Lasarte bidegorria eraikitzeaz

Gipuzkoako Foru Aldun-
diak Txikierdi eta Lasar-
te-Oria bidegorriz lotzeko
lanak esleitu dituela berri
eman du Usurbilgo Uda-
lak. Txikierditik, Oria er-
tztetik Michelindik barrena
nahiz Urbil merkatalgune
behe aldetik joko duen bide
bana eraikitzen hasiko dira
“gutxi barru”. 20 asteko tar-
tean egin asmo dituzte la-
nak, “Construcciones Ote-
gui Gaztañaga SL-ri esleitu
dizkio” Foru Aldundiak,
386.785,27 euroan.

Urbil inguruko bidea itxita

Astelehenaz geroztik eta
datozen bizpahiru asteetan,
Urbil merkatalgune ondoko
bide zati bat itxita egon-
go da. Zehazkiago esanda,
Eman lantegi parekoa, 8:30-
18:00 artean.

Krisi ekologiko, klimatiko eta sozialaz, datorren Jakin Jardunaldian

“Krisi ekologiko, klimati-
ko eta sozialaren erdian:
desazkundera beste biderik
bada?”. Hortxe UEU-k Usur-
bilen iragarri duen Jakin
Jardunaldien izenburua eta
gaia. “Mundua krisian dugu.
Larrialdi klimatiko, ekologi-
ko eta sozial bete-betean bizi
gara. Kolapsatzear, diote adi-
tu askok eta askok, nahiz eta
horrela denik ez dugun senti-
tu”. Datorkigunaz, desazkun-
dearen aurrean egin daitekeen-
naz, “zer alternatiba ditugu
abian Euskal Herrian?”. Hor-
txe hausnarketarako gaia.
Uztailaren 15ean eta 16an
ospatuko dira jardunaldiok
Udarregi Ikastolan. Matriku-
lazio epea zabalik dute. Infor-
mazio gehiagorako: ueu.eus



Gipuzkoako diputatu nagusia, Elkar Ekin Lanean estrategia aurkezten.

Elkar Ekin Lanean, bazterkeriatik lanera

Gipuzkoako Foru Aldundiak Elkar Ekin Lanean 2021-2023 estrategia aurkeztu du; datozen hiru urteetan, bazterkeria arriskuan edo egoeran dauden pertsonentzako 3.500 lanpostu berriren sorrera bultzatzea du xede

Bazterkeria arriskuan edo egoeran dauden pertsonak gizarteratu eta lan munduan txertatzea helburu duen Elkar Ekin Lanean 2021-2023 estrategia aurkeztu du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Enplegu inklusiboa eta kalitatezkoa sustatu nahi da egitasmo honekin. "Nazioartean eredu gara lan babestuan eta ekonomia sozialean, hirugarren sektore sozia-

leko enpresei eta kooperatibei esker, hurrenez hurren. Hori xe bera lortu behar dugu enplegu inklusiboan" adierazi du Markel Olano Gipuzkoako diputatu nagusiak.

Tresna nagusia, lana
Horretarako, 16 lan lerro eta 30 neurri zehatzetan banatutako estrategia landu du Foru Aldundiak, Etorkizuna Eraikiz

programaren babespean eta Eusko Jaurlaritzaren 2030 Enpleguaren Euskal Estrategia-ekin bat eginez. Lana izango da tresna nagusia "bizitza duina" bermatzeko, "bazterkeria arriskuan dauden pertsonak gizarteratzeko" eta "bizitza proiektu bat berdintasunez garatu ahal izateko", dio diputatu nagusiak. Datozen hiru urteetan, 3.500 lanpostu berriren sortzea da helburua.

Pandemia aurreko datuen arabera, lurraldean ia 37.000 lagun daude pobrezia larrian eta, gainera, egoera horretan kronifikatzeko arriskua dago. Bazterkeria egoeran edo arriskuan dauden pertsonen gain, kualifikazio baxua dutenak, langabezian kronifikatu diren pertsonak, 45 urte baino gehiagorekin langabezian daudenak nahiz biolentzia matxistaren biktimak kontuan izango ditu, bereziki, Elkar Ekin Lanean estrategiak.

Dirulaguntza deialdi berria
Estrategiaren hedapenerako, datozen hiru urte hauetan 36,6 milioi euro bideratzea aurreikusten du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Horietatik, ia 3 milioiko dirulaguntza deialdia onartu berri da -iaz 1,2 milioiko zuzkidura izan zuen-.

Hiru alorretan eragingo du, horiei lotutako sei helburu nagusi lortze aldera. Lehenik,

lanean diharduten erakundeen eta eragileen sistema trinkotzeko ahalegina egingo du, lankidetzazko gobernantza eredu bat garatuz. Bigarrenik, enplegu inklusiboa eta kalitatezkoa zabaltzeko aukerak indartzea izango du helburu. Horretarako, lanpostu berriak eratzeko esfortzuaz gain, inklusioaren ikuspegia landuko duten enpresa berrien sorrera sustatuko da. Hirugarrenik, bazterkeria egoeran edo arriskuan dauden pertsonen aukera berdintasunez lan munduan txertatzeko aukera izan dezaten eragingo du estrategia honek, Eusko Jaurlaritzarekin eta Lanbiderekin elkarlanean.

Hori egiteko, 16 lan lerro eta 30 neurri konkretu ezarri ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak. Ondorioz, 4.000 lagunengana iristea aurreikusten da, 2.500 lagunengana formakuntza bideratu eta 3.500 lanpostu berriren sorrera bultzatu. Gainera, 2023rako lurraldean hamabost gizarteratze enpresa edukitzea ezarri dute xede.

BAZTERKERIA ARRISKUAN EDO EGOERAN DAUDENENTZAKO 3.500 LANPOSTU SORTU NAHI DITUZTE

Elkar Ekinen onuradunak

CAROLINA KALEXKA

"Edozer gauza egiteko ezgaitua nengoen. Agorafobia sentitzen nuen. Lan barik nengoen. Kalexkan, sentsazio ugari sentitu nuen proiektuarekin lehen harremana izan nuenean. Inoiz halakorik egin barik nengoen: ez entxufe bat aldatu, ez egurra landu...Azken egunean, gertatutakoaz hausnartzen, ohartu nintzen ahaztu nuela noiz desagertu zen agorafobia. Gainera, ume batek bezala disfrutatzen nuen; pozarren".

JOSEPH SUTARGI

"22 urte ditut. Jatorriz, marokoarra. Donostian daroatzat hiru urte. Egun, Ategorrietan bizi naiz, harrera etxe baten. Oso egun zailak pasa ditut, kale gorrian. Orain, goizez, tailerrera joaten naiz; arratsaldean, EPARA, ikastera. Roberto da nire monitorea. Hark erakusten digu arotzeria, egurra bola landu... Ofizio bat ikasita irtetea gustatuko litzaidake, lana aurkitu, familiari lagundu...".

JUAN ANTONIO EMAUS

"Extremaduran jaio nintzen. Baina Arrasaten hezi naiz. Kale gorrian nintzen eta aukera izan nuenean, Emausen eman nuen izena. Ikastaroa egin nuen, ondoren, lan egiteko aukerarekin, eta hemen nago, lanean. Oso pozik nago. Bizitzeko gogoia eman dit honek. Nire lanean gustatzen zaidana da gauzak konpontzea, margotzea, bonbilla bat jartzea...".

VANESA EDE EMAKTIVA

"Une oso gogorak pasa ditut. Inoiz ez dut lortu kontratu batekin lan egitea. Nahiz eta umeak zaintzen aritu naizen, garbiketan praktikak egin ditut... Orain nago Emaktivan. Espero dut positibotasuna lortzea, aukera gehiago izatea bizitzan aurrera egiteko, alabarentzako erreferente izatea, amak lan ondo egiten duela ikus dezala. Eta jendeak nigan sinistu dezala".

Pentsio publiko duinen aldeko martxak

Usurbilen egingo du geldialdia

Murrizketarik gabeko pentsio, soldata eta bizi duinen aldeko bizikleta martxa zeharkatzen ari da herrialdea egunotan, Gipuzkoako Pentsiodunak mugimenduak antolatuta. Ostiraleko (hilak 28) etapa Usurbilen amaituko da. Ekimena gure artera heltzear den honetan, aipatu bilguneko ordezkari Karlos Etxeberriarekin bildu da NOAUA!.

NOAUA! Larunbateko mobilizazioen atarian, bizikleta martxa antolatzeko pausoa eman duzue. Nolatan?

Karlos Etxeberria: 2019ko abenduaren 12an Gasteizera joan ginen EAEko hiru lurraldeetatik eta orduan ere Gipuzkoatik martxa bat oinez egiteko asmoa genuen Gasteizera. Bertan behera geratu zen. Oraingoan bizikleta martxa antolatzea erabaki dugu, gizartea eta batez ere eragileak, erakunde sindikalak eta mugimendu sozialak aktibatzeke beharra ikusi dugulako; indarrak metatu eta hilaren 29ko manifestazioa arrakastatsua izan dadin. Azken manifestazioetan atxikimendu ugari izan ditugu, baina gero parte hartze hori ez da hainbestekoa izan. Mugitzeko



“Izurrite honek erakutsi du publikotasunak duen garrantzia”, azaldu digute Gipuzkoako Pentsiodunek. Argazkia, artxibokoa.

PENSIODUNAK

“Mugitzeko beharra ikusten dugu, eraso handia datorrelako etorkizunean”

beharra ikusten dugu, eraso handia datorrelako etorkizunean. Aurreko pentsio erreformak indarrean daude eta berriak iragartzen ari dira.

Pentsio, soldata eta bizi duinen aldarriak indartu ditu pandemiak.

Izurrite honek erakutsi du publikotasunak duen garrantzia, eta gizarteak behar duen babesa publikotik etorriko dela.

Merkatuak ez du inolaz ere bermatzen jendearen babesa. Neoliberalismoak eta merkatuak ez die erantzuten gizartearen nahi, behar eta interesei. Horrek norabide aldaketa bat beharko luke eremu askotan. Osasun zerbitzu publikoan murrizketak egin eta egin izana faktorea izan da gero osasun krisi honetan. Zaintza pribatizatzen nola joan diren ikusi da; egoitzak esku pribatuetara pasa dira eta nahiz eta publikoak izan, kudeaketa hori pribatutik egiten da. Hor sartu dira enpresak, funts putreak... Eta horiek negoziarako egiten dute. Zaintzaren ereduak eredu atzeratu bat da, ez du balio.

Makrozentro horiek eta horiekin batera, pribatizazioaren bidean egin diren murrizketak... Egoiliarak zaintzeko langile oso gutxi daude, langileak denbora izatea eskatzen ari dira. Larriena da halere ez zaiola horri aurre egiten eta lehen bezala funtzionatzen ari garela, zaintzari dagokionean.

Lehengora bueltatu edo lehengoari eusteko saiakera argian.

Eta hori eremu askotan gainera. Berriz ere oztopo berarekin topatuko gara. Gizartean halako hausnarketa behar da sektore guztietan, etorkizuneko gizartearen lerro batzuk lantzeko.

“Adineko jendearengan eragin izugarria izan du izurriteak”

NOAUA! Bereziki pentsiodunen mugimenduak ordezkatzeko duen kolektiboa izan da erasotuen izurrite honetan. Nola eragin du?

Karlos Etxeberria: Argi dago adineko jendearengan eragin izugarria izan duela izurriteak. Hildako asko eta asko adinekoak dira. Sektore hau erasotu du gehienbat eta horrek eragin zuzena

izan du. Beldurra zabaldu da jendartean. Halere, iazko martxoaren 14an etxean sartu gintuzten, baina ekainaren 1ean jada kalean geunden eta orduz geroztik atera gara nahiko duin, neurri guztiak hartuta, bilera telematikoak egin ditugu... Mugitzen jarraitu dugu. Mugimendua batez ere herriko batzarretan da goela ikusten da, baina ez da

hasierako mugimendu hura. 2021eko urtarrilaren 15ean bete genituen hiru urte, urte asko dira, eta izurriaz aparte horrek ere badu eragina. Horregatik ikusten dugu garrantzitsua sektore guztien arteko saretze edo aliantza bat, bakoitzak bere autonomia eta nortasunetik batzen gaituzten aldarriak aurrera eramateko; gure pentsioetan garrantzia

handia baitute, lan baldintzek, lan erreformek... Denak du harremana; gazteak nola dauden, lan erreforma horiek bideratzen dituzten lan partzialek. Mugimendu feministak ere bai. Gutxieneko pentsio miseriazkoa duten gehiengoak emakumezkoak dira. Zergatik ez dute kotizatu? Etxeko zaintza egin behar izan dutelako.

“Pribatizazioaren bidetik jo nahi dute”

NOAUA! Donostiako manifestazioan aldarri guztiok islatu nahiko dituzue, egungoetan baina etorkizuneko bizi baldintzetan ere izango duten eragina.

Karlos Etxeberria: Gehiena etorkizunekoei, gaur egunekoei ere bai. Hego Euskal Herrian 250.000 lagun daude 600 euro inguruko pentsioekin eta gehienbat emakumezkoak dira. Erretiroa 67 urtera atzeratzeko erabakia indarrean dago. Bizi itxaropena zigortzen duten jasangarritasun faktorea hor dago, horrek pentsioa jaitsiko du. Pribatizazioaren bidetik jo nahi dute, funts putreak sartu nahi dituzte negozioa egiteko. Datorkigun panorama da pentsio sistema publikoa deuseztea eta pribatizazioa bideratzea. Eta pentsioak asistentzia maila oso pobreak direnentzat uztea.

Bizikleta martxarekin zer nolako dinamika bideratu asmo



Larunbat honetan, Usurbil-Donostia bizikleta martxa osatuko dute goiz partean eta arratsaldeko 17:00etan hasiko da manifestazioa Donostiako Alderdi Ederretik.

PENTSIODUNAK

“Larunbateko Donostiako manifestaziora jendea erruz etortzea nahi genuke”

duzue herrietan?

Sei etapa dira; ahal dugun herri guztietatik pasa eta jendearengan eragitea. Herri as-

kotan ditugun batzarrak ari dira prestatzen harrera, kartelak, logistika guztia (non bazkaldu eta lo egin...). Giro bat sortu eta beste sektoreekin ekimenak elkarlanean egitea nahi genuke. Gu ere zirikatzeko akuilua izatea.

Eta aldaketarako.

Hori behar beharrezkoa da, aldaketa, eraldaketa mai-

la guztietan. Gure eremua oso garrantzitsua da. Agian gazteei urrutiko errealitatea dela irudituko zaie, baina ez, honek nolabait markatuko du norabidea. Hemen gure eskubideen, bizitzaren alde egiten ez badugu, hilda gaudе. Larunbateko Donostiako manifestaziora jendea erruz etortzea nahi genuke eta nolabait urrats handi bat izatea. Udazkenean ere etorriko da beste ekinaldi handi bat, urte honen amaiera guztiontzat oso garrantzitsua izango dela ikusten baita.

Bizikleta martxarekin bat egin dezake edonork?

Nahi denean edonor sartu daiteke. Pentsiodunen ikurrak eta sinboloak eramango dira. ikurriña... Manifestazioan erakunde sindikal eta sozial bakoitzak bere pankarta eta aldarriak eraman ditzake. Larunbateko manifestazioan eta bizikleta martxan parte hartzea eskertuko genuke.

Bizikleta martxa ostiralean iritsiko da Usurbilera

Aste hasieratik bidean da murrizketarik gabeko pentsio publiko duinen alde Gipuzkoako pentsiodunak mugimenduak herrialdean barrena antolatu duen bizikleta martxa. Ostiraleko etapa Usurbilen amaituko da harrera ekitaldi batekin eta azkena, larunbatekoa udalerrri honetatik abiatu eta Donostian deitua duten manifestazioarekin amaituko da. Maiatzaren 29a mobilizazio eguna izango baita Hego Euskal Herrian baita estatu espainiarrean ere.

Bizi baldintza duinen alde

Oraindik orain betetzeke dauden eskaerak dira pentsiodunek behingoz betetzea eskatzen dutenak; 2011 eta

2013ko pentsio-erreformak eta 2010eko eta 2012ko lan-erreformen murrizketak indargabetzea; aurtengo iragarritako murrizketa berriak eta Pentsio Publikoen Sistemaren pribatizazioa gaitzestea; 1.080 euroko gutxieneko pentsioa eta lanbide arteko 1.200 euroko gutxieneko soldata exijitzea; soldatetan eta pentsioetan dagoen genero-arrakala amaitzea; ezkontidearen pentsioaren %100 alarguntza-pentsiorako; erretiro aurreratua zigortu gabe onartzea; edota osasun zerbitzu publiko eta zerbitzu sozio sanitarioak izateko eskubidea bermatzea. Baita “mendekotasuna zaintzeko eta artatzeko zerbitzuak eskatzen ditugu, kalitatezkoak, publikoak,

komunitarioak eta unibertsalak”. Urteotan sarritan errepikatu duten mezu honekin laburbiltzen dute eskaera zerrenda. “Gobernatzen duenak gobernatu, pentsio publikoak defendatu. Pentsio, soldata eta bizitza duinak gizon eta emakumeentzako. Aukera berdina guztientzako”.

Ibilbidea

- Maiatzak 24, astelehena: Errenteria-Tolosa.
- Maiatzak 25, asteartea: Tolosa-Zumarraga-Urretxu.
- Maiatzak 26, asteazkena: Zumarraga-Bergara.
- Maiatzak 27, osteguna: Bergara-Deba.
- Maiatzak 28, ostirala: Deba-Usurbil.

- Maiatzak 29, larunbata: Usurbil-Donostia.

Usurbilen harrera Maiatzak 28, ostirala

- 18:00 Harrera bizikleta martxako partaideei, Donostia alderako autobus geltoki ondoko San Inazioko biribilgunean. Elkarrekin frontoirako bidea.
- Ondoren, ekitaldia frontoian.
- **Maiatzak 29, larunbata**
- Goizean, bizikleta martxaren azken etapa Usurbildik Donostiara.
- 17:00 Manifestazioa Donostiako Alderdi Ederretik.
- Antolatzailea: Gipuzkoako Pentsiodunak.



Ez zen sagardo posturik, ezta jende uhoderik ere. Sagardo egarria zuenak bestelako alternatibaren baten aldeko apustua egin behar izan zuen.



Bigarren urtez ospatu ezin izan den Sagardo Egunari gorazarre egin zioten herriko txistulariek eta ezustean heldu ziren zanpantzarrek.

Etorri berriei harrera egokia egiteko protokoloak prestatzen ari dira Buruntzaldeko udalak

Azken urteotako migrazio mugimenduek eraginda, jatorri askotako biztanleak ditugu gure herrietan. Kultura eta hizkuntza desberdinetako herritarrak. Aniztasun hori behar bezala kudeatzea da udalen erronka nagusietako bat. Horretarako, hainbat egitasmo eta tresna prestatzen ari dira etorri berriei harrera egokia egin eta elkarbizitza sustatzeko helburuarekin.

Ikuspegik (Immigrazioaren Euskal Behatokiak) 2021ean landu duen txostenari erreparatuta, EAEko 2.212.561 biztanleetatik 246.501 atzerritarra da jatorriz (%11,1). Gipuzkoan ere oso antzekoak dira proportzioak (%11,2), 81.354 pertsona jatorri atzerritarrekoak.

Buruntzaldera etorrita, jatorri atzerritarra duten biztanleen proportzioa baxuagoa da. 75.000 eskas biztanle dituen eskualde honek %7 inguruko atzerritar tasa du. Proportzioak dezente aldatzen dira herri batetik bestera. Badira %5 inguruko portzentajea dutenak (Lasarte edo Astigarraga kasu)



Amher-SOS Arrazakeria Elkarteak Atzerritartasun Legeari buruz antolatutako informazio saioa, Hernaniko Biterin, 2020ko otsailean.

EGITASMOAK

'Ongi Etorri Eskolara' proiektuaren xedea da atzerritik etorritako familiei integrazioa bideratzea, euskal kulturara eta hizkuntzara hurbiltzearen bidez

eta badira %10eko portzentajea dutenak, Hernani kasu. Argitu behar da, datu hauen arabera, atzerritartzat, Espainiako Estatutik kanpo jaiotakoa hartzen dela.

Buruntzaldean dauden atzerritarren jatorriari dagokionez,

EAEkoen eta Gipuzkoakoen antzera, latinoamerikarrak dira gehienak; magrebiarrak ere ugari dira eta errumaniarrek ere badute presentzia esanguratsua, portugaldarrekin batera.

Hizkuntza ezagutzari dagokionean, nahiz eta datu zehatz eta fidagarriak ez dugun, esan daiteke gehiengo handi batek gaztelaniaren ezagutza baduela, askok hizkuntza bakar gisa dakarte, eta beste batzuek beste hizkuntza batzuekin batera. Badira gaztelaniaren ezagutza batere gabe edo oso gutxiarekin iristen direnak ere, jatorriaren arabera, eta badira, aurrez Euskal Herriko beste herriren

batean egonak direlako edo, euskararen ezagutza maila txiki bat dakartenak, baina oso gutxi dira horiek.

Etorri berrien harrera

Nolako harrera egiten diegu gure herrietara datozen biztanle berriei? Azken bolada honetan kezka iturri da gai hau Buruntzaldeko udaletan eta gero eta gehiago dira martxan jartzen ari diren protokolo eta ekimenak, harrera egokia egiteko, batetik, eta, behin herrian daudela, herriko bizi-modu, kultura, hizkuntza eta herritarrekiko harremanak sustatzeko.

Inklusiorako ekimenak

Usurbilgo Udalak hainbat urte daramatza herritarren jatorri aniztasunari hurbiletik jarraitzen. Haien jaiokontuan hartuta ontzen ditu neurketak; Usurbilgo biztanleak non jaiok diren azaltzen du, bestelako zenbait aldagairekin batera. Nolanahi ere, azken urtean, jauzi kualitatiboa eman du. Usurbildar guztien arteko elkarbizitzarako gakoak bilatu eta bultzatu asmoz, udalerririk jasotako bi migrazio olatu na-

gusiak izan ditu hizpide. Alde batetik, 1960/70eko urteetan Espainiatik etorritakoa; eta, beste alde batetik, 2000. urteaz geroztik munduko hainbat txokotatik iritsitakoa. Horren ostean, migrazioaren gaineko esperientziak eta diskurtsoak jaso ditu bi euskarritan: Azti-ker Ikerluneak Udalaren eskariz egindako *Jatorri aniztasuna eta elkarbizitza Usurbilen txosten*ean; eta, horren osagarri, Migrazioari maskarak erazten ikus-entzunezkoan.

Hori gutxi balitz, jatorri aniztasunaren festa antolatu ohi du Udalak, urtero, Mundualdia izenburupean. Joan den urtean, egungo osasun egoera dela eta, ezinezkoa izan zen ospakizuna egitea; baina, aurren, berriz ere heldu zioten ekimenari. Ezohiko formatuan izan zen, martxoaren 27an. Bertan aurkeztu zuten, hain justu ere, alde zehatzeko dokumentala.

Esanak esan, Buruntzaldeko gizartearen errealitatea

da kultura-aniztasuna, eta herri guztietako udalek, norbanakoez, taldeek eta baita eragileek ere, indartsu heldu diote erronkari. Izan ere, egungo altxorra dela sinesten dute; eta, herritarren arteko arrakala handitzetik urrutituz, kultura guztiak bersarkatzeko eta elkarbizitza osasuntsua lortzeko ueña dela uste dute. Oraina aldatuz gero, etorkizuna hobea eta itxaropentsuagoa izango baita.

“Ulertu behar dugu kanpotik datorrena ez datorrela bertakoei kalte egitera”

Migrazioari buruzko esperientziak eta diskurtsoak jasota, ‘Migrazioari maskarak erazten’ dokumentala osatu du Usurbilgo Udalak, eta ikusgai dago sarean. Esperientzia horietako bat da Lizzy Mejía Funezena. Duela zazpi urte etorri zen Hondurasetik, 14 urterekin.

NOAUA! Badira urte batzuk Hondurasetik etorri zinela, ezta?

Lizzy Mejía Funez: 2014an etorri nintzen Usurbilera, 14 urte nituela. Ama hemen zegoen 3-4 urte lehenagotik, eta bi anaiek etorri nintzen ni.

Atzerritar asko zineten herrian, orduan?

Ez, duela zazpi urte gutxi ginen kanpotik etorritakoak. Baina orduetik asko hazi da immigrazioa.

Zaila izan zen hasiera?

Bai eta ez. Lasarte-Orian ikasi behar izan nuen, ikasle etorri berriarentzako harrera programaren barruan. Nik nahiago nuen Usurbilen ikasi, jendea ezagutzeko. Baina gustura ari-



Duela zazpi urte etorri zen Lizzy Mejía Funez Hondurasetik Usurbilera, 14 urterekin.

LIZZY MEJÍA FUNEZ

“Herrian lagun bat egin nuenean, sentitu nintzen indartsuago eta seguruago, toki ezberdinetara joateko. Ahaldundu egin ninduen horrek”

tu nintzen, bazelako irakasle bat oso saiatur. Euskara ikasi genezan nahi zuen, baina era berean, kezkatzen zen guregatik: eskolan ondo ari ote ginen, integrazioa ondo ote zihoan...

Lagun bat egin nuen Lasarte-Orian, baina garai hartan,

Usurbilen ez nuen inor ezagutzen, eta antolatzen ziren ekintzetan ere ez nuen parte hartzen, harremanik ez izateagatik. Eskolaz kanpoko jarduerak asko laguntzen dute, haur baten integrazioan.

Eta noiz hasi zinen Usurbilgo jendea ezagutzen?

Lasarte-Orian ikasketak bukatuta, Donostia joan nintzen batxilergoa ikastera, gaztelaniaz. Euskaraz egitea gustatuko zitzaidakeen, baina oraindik ez nengoen prest horretarako. Eta Donostian egin nuen topo Usurbilgo neska batekin. Zunba ikastarotik ezagutzen genuen elkar, baina ez

genuen harremanik izan; eta Donostian lagun egin ginen. Eta bere bitartez, hasi nintzen Usurbilgo jende gehiago ezagutzen, herrian gehiago ateratzen, afaltzeko elkartzen... Hori baino lehen, familiarekin egiten nuen bizitza, paseatu, mendira joan... Baina ez nintzen Artzabalen esertzen trago bat hartzera. Ez nintzen gai sentitzen horretarako.

Zertan lagundu zizun horrek?

Jende asko ezagutzen, eta jardueretan parte hartzen. Hortik aurrera, indartsuago eta seguruago sentitu nintzen, toki ezberdinetara joateko. Ahaldundu egin ninduen, herrian pertsona bat izateak jendeari esango ziona: begira, hau Lizzy da, nire laguna. Horrek erraztu egin zidan bidea. Eta adinak ere bai. Orain 21 urte dauzkat, eta ez daukat lotsarik jendearengana joan eta nire burua aurkezteko. Beste lagun bat ere badaukat, Hodei; eta ezagutu nuen niregana gerturatu zelako Mundualdian, Usurbilgo kultura aniztasunaren egunean. Eta beraren bitartez ezagutu ditut beste hainbat.

“Enpatia behar dugu”

NOAUA! Aurrerapausoak eman dira azkeneko urteotan, integrazioaren bidean?

Lizzy Mejía Funez: 2014tik hona bai, aurrerapauso dextente. Eta ez bakarrik Europatik kanpo gatozen herritarrekiko; baita Estatu osotik etorri izan direnekiko ere. ‘Migrazioari maskarak erazten’ dokumentalarekin garbi ikusi da hori. Asmoa izan da ezagutaraztea zein garen pertsona horiek, Usurbilen bizi garenak baina ikusgarritasun handirik ez

daukagunak; eta horrekin batera, estigmak hautsi eta kultura-aniztasuneko elkarbizitza sustatzea herrian.

Eta lagundu du horretan?

Oraindik goiz da esateko, baina baietz uste dut. Ez da gauza bera norbait zuregana gerturatu eta bere istorioa kontatzea, edo dokumental baten bitartez jende askorengana iristea hori. Horren bitartez iritsi gara ezagutzera, adibidez, nor den ondoko bizilaguna, inoiz hitz egitera gelditu ez garena.

Etorri berriei harrera egokia izateko, zer da ezinbestekoa?

Ulertzea kanpotik datorrena, ez datorrela bertakoei kalte egitera. Hona dator pertsona delako, bere eskubideak dauzkalako, eta bere bizi-kalitatea hobetu nahi duelako. Beharrak dauzkaten pertsonak dira kanpotik etortzen direnak. Sistemak berak eta instituzioek, hainbat zailtasun ezartzen dizkigute: Atzerritartasun Legea, errolda, lan kontratu baten beharra legezkoa izateko eta osasungintzara eta hezkun-

tzara sarbidea izateko... Eta etorri berriarekiko aurreiritziak baldin badauzkagu, eta pentsatzen badugu lanpostua kenduko digula, lapurreta egin, herria kutsatu... Horrek guztiak zaildu egiten du integrazioa. Denak gara pertsonak, eta immigrazioa gizartean txertatuta dago, bere ezaugarrietako bat da. Enpatia behar dugu, eta interesa izan jendea ezagutzeko, eta baita besteek gu ezagutzeko ere. Hori funtsezkoa da, herri inklusiboa izateko.

SAGARRONDOTIK SAGARDORA 2021

Kimaketa
praktikak
Bertako
sagastietan
egingo dira!

Ekainak 4, OSTIRALA
SAGASTIEN UDAKO KIMAKETA,
GAITZAK ETA IZURRITEAK.
Aitor Etxeandia

ORDUTEGIA: 15:30-18:30 Potxoenea

SARRERAK: aldez aurretik
usurbilkultura.eus plataforman.



Aginaga aldeko ur zikinak saneamendu sarera batzeko lankidetzaz hitzarmena

Iraganean, udalerrri honetako ur zikinak euri eurekin nahastuta erriora isurtzen ziren. Gerora ordea eraikitako azpiegiturak tarteko, egun ur zikin gehienak Loiolako araztegi bideratzen ditu Usurbilek, kolektore bidez. Oraindik halere, saneamendu sare horretatik kanpo dira zenbait zonalde; Aginaga ingurua nagusiki. Egoera aldatzera doala berri eman du Usurbilgo Udalak. Berri garrantzitsuzat jo zuten Lur Etxeberria zinegotziak eta Josu Alkorta udal-bridagako kideak maiatzaren 21ean emandakoa, are gehiago, Oria ibaia naturgune babestua dela jakinda.

URA Agentziak eta Añarbe Mankomunitateak maiatzaren 7an onarturiko lankidetzaz hitzarmenari esker, aipatu Aginagako ur zikinak erriora isurtzea eragotziko duten lanak bideratzea adostu dute. Hiru faseetan gauzatu asmo dute proiektua. Udaletik zehaztu dutenez,



Berri garrantzitsuzat jo zuten Lur Etxeberria zinegotziak eta Josu Alkorta udal-bridagako kideak.

HITZARMENA

Aginagako ur zikinak erriora isurtzea eragotziko duten lanak bideratzea adostu dute URA Agentziak eta Añarbek

egun Osinaldeko hondakin uren ponpa estazioetik Txokoalden eraikiko den ponpa estazioa arteko sarearen lotura egin asmo dute. Gero, Txokoaldeko gune honen eta Aginagan eraikiko den ponpa estazioaren arteko lotura Oria ibaia gurutzatuta. Eta azkenik, hiruga-

rren fasearen baitan, "Aginagan eraikiko den ponpa estazio horretatik erriberan barrena egingo den kolektore berria". Ardatz ezberdinak izango dituen etxebizitzetara. Egungo saneamendu saretik at dauden etxebizitzetako ur zikinak kolektore horretara batzeko proiektua lantzen ari dira.

5,4 milioi euroko inbertsioa

Lanok guztiak gauzatzeko aurreikusitako epeen berri ere eman du Udalak. Añarbe Mankomunitateak eta URA Agentziak sinatutako hitzar-

menaren testuinguruan gauzatu diren lanak epe laburrean esleitu eta abendurako abian izatea espero dute. 22 hilabeteetan eta aipatu moduan hiru faseetan bideratuko lituzkete lanok. Nabarmentzeko moduko inbertsioa izango da dirutan; 5,4 milioi eurokoa. %60a URAk finantzatu du eta bere gain hartuko ditu kontratazio lana eta obra zuzendaritza; gainerako %40a Añarbek.

Ur zikinak erriora isurtzea eragotzeko urrats berri eta garrantzitsua zalantzarik gabe, lehendik jorratzen hasiak ziren bidearen baitan ordea. Udalak Potxoenean oroitarazten zenez, 2019an onartu zuten Aginagako proiektua baina hiru faseetako bi jasotzen ziren bertan, hirugarrena zintzilik zen. Horixe zen hain zuzen prentsaurreko honen bidez adierazi nahi zutena; URAk eta Añarbek onarturiko lankidetzaz hitzarmenak hiru faseak gauzatzeko aurreikusten duela.

Etxeetako urak bereizteko proiektuak

Paraleloki, egun hainbat etxebizitzetako urak, euri urak eta ur zikinak bereizi gabe daude Aginagan eta Kalezar inguruan. Ur guztiok bereizita biltzeko lanketa betean da Udala. Hilabeteotan bideratuko diren obren eremuari dagokionez, Txokoalde legoke batetik. Laster beteko dira 24 urte, 1997ko ekainaren 1ean

uholdeak izan zirenetik. Gertera hark eragindako txikizioa konpontzerako garaian, euri urak eta ur zikinak bereizteko lanak bideratu zituen Udalak garai hartan bertan.

Aginagako etxebizitzien errealitatea bestelakoa da. Hemen bai, euri urak eta ur zikinak bereizi gabe biltzen dira. Ingenieritza talde bat kontra-

tatua du Udalak, kolektorea eraikitzerako proiektu bat idatzi eta ur hauek bereizita egon daitezken. Urtea amaitzerako proiektua bukatzea aurreikusten du Udalak.

Kalezarren ere antzeko egoeran dira hainbat etxebizitza. Matia adinekoen auzunea eraikitzen ari den honetan, Kalezarretik N-634 errepide al-

dera dauden etxebizitzien euri urak eta ur zikinak bereizteko ere erabili nahi dute une hau. Ugaldea industriagunea ere antzeko egoeran da; bertako urak bereizteko proiektu bat idazten ari da Udala. Udaizkerako prest izatea espero dute, obra horien aurrekontua zehaztu eta ze epeetan bideratu daitezkeen aurreikusteko.

www.noaua.eus
USURBILGO ATARIA

Kima
MASAJE LEKUA
·KIROL MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA
Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

ADA
-MASAJEAK-
633 36 22 33
erreka-txiki 1, USURBIL

“Igoera lortuz gero, Ohorezko Bigarren Mailan aritzea bideragarria izango da ekonomikoki”

Usurbil Kirol Elkarteak ia urterokoa du ligaren bat etxera ekartzea, dena delako mailan. Senior neskek, esaterako, Euskadiko Txapelketa irabazi berri dute, eta Ohorezko Bigarren Mailarako jauzia eman dakieken fasea jokatzekoak dira hurrengo asteburuan, ekaineko lehen asteburuarekin bat. Garaipen honek eman dienaz, eta etorkizuneko asmoez aritu dira Noaua!rekin Ane Irazabal, Leire Furundarena eta Estitxu Berasategi jokalariek.

NOAUA! Euskadiko txapeldun izan zarete aurtengoan. Orain igoera fasea jokatzeko tokatuko zaizue, pandemiaren testuinguruetatik beste modu batera egingo da edo ohi bezala?

Leire Furundarena: Federazioak aurtengoa ere ohi bezala planteatu du orokorrean. Behin Euskadikoa irabazita Zilarrezko Mailarako igoera fasea jokatu dugu. Osasun neurriak direla medio, joan aurretik antigenoen testak egin beharko ditugu. Espero dugu positiborik ez dugula izango tarteko, bi jokalaria baino ez ditugu uzten aulkian, eta arazo izan liteke.

Ane Irazabal: Ekainaren 4an, 5ean eta 6an jokatu da igoera fasea. Oraindik zehazteke dago non izango den, hala ere, gure zelaia ez da aukeretako bat. Usurbilek ez du eskaera egin bertan joka dadin. Euskadin publikorik gabe ari gara jokatzeko partidak, baina beste leku batzuetan neurri batzuk hartuta publikoarekin egiten ari direla esango nuke. Horrez gain, igoera jokatzeko den kiroldegientzat gastu ekonomikoa da, eta diru hori erreperatzeko aukera handirik ez dago orain. Lehen errifak egiten genituen, baina aurtengo horrek ez dauka zentzurik.



“Behin Euskadikoa irabazita, Zilarrezko Mailarako igoera fasea jokatu dugu”.

ANE IRAZABAL

**“Ekainaren 4an,
5ean eta 6an jokatu
da igoera fasea”**

Zilarrezko mailan egon zintzen duela urte gutxi. Orduko taldea asko aldatu da.

L.F: Bai, ni talde hartan ere izan nintzen. Hiru alditan ibili ginen maila horretara igo nahian, eta azkenean, igoera lortu eta gero, urtebete egin genuen Zilarrezko Mailan, eta

hurrengo urtean taldea desagertu egin zen.

Estitxu Berasategi: Joan zen urtean ere taldea izan genuen, baina ikasketak tarteko, Covid-19aren eraginagatik eta bestelako faktore pertsonalengatik jende askok taldea uztea erabaki zuen. Horrez gain, igoera fasea ere jokatu genuen, baina alderdi ekonomikoak ez zigun ahalbidetu aurtengoan Zilarrezko Mailan aritzea. Horrek ere eragina izan zuen jokalaria askorengan, nik uste.

Beraz, denboraldi hasiera oso zaila izan zen, lau bat pertsonak baino ez genuelako izena eman, eta taldea osatzea lokolan egon zen.

A. I: Datorren urterako animatu nahiko genuke jendea izena ematera, oraindik ez dakigu ziur zein mailatan egongo garen, baina gaudenean gaudela ere ongi etorriak izango dira denak.

Igoera fasean Zilarrezko Mailarako igoera lortuz gero, esan dizute maila horretan aritzea posible izango ote den?

A. I: Klubak esan digu igoera lortuz gero, ekonomikoki bideragarria den proiektua dela Ohorezko Bigarren Mailan aritzea. Lehen aldia dugu puntu honetara iritsita ziurtasun osoz igoera hori egingarria dela esatea, fasea jokatu aurretik. Gero, ez da izango alderdi ekonomikoa soilik, nahiko jokalaria bagauden ikusi beharko litzateke. Ohiko baldintzetan alderdi ekonomikoari aurre egitea oso zaila da, orain gauden mailatik hurrengorako jauzia ekonomikoki jipoi handia da klubentzat.

Kadeteak denboraldi ederra osatzen ari dira



Usurbil K.E.-ko kadete mutilak ere Espainiako Sektorerako sailkatu dira. Ekaineko lehenengo asteburuan jokatu da baina lerro hauek idazterakoan oraindik ez zegoen jokalekua zehazturik.

“Beste maila batean lehiatzea amu erakargarria izan daiteke eskubaloia maite duen edonorentzat”

NOAUA! Igoera posible horrek jokalaria gehiago erakar ditzakeela uste duzue? Taldetik joan zirenak edo beste leku batzuetatik etorritakoak edo.

Ane Irazabal: Beste maila batean lehiatzeko aukera izatea amu erakargarria izan daiteke eskubaloia maite duen edonorentzat. Edozeinek ez dauka aukera maila horretan lehiatzeko. Alde txarrak ere baditu, konpromiso irmoa eskatzen baitu maila horretan aritzeak, eta bakoitzak bere %100 eman beharko luke taldea norabait heltzeko.

Estitxu Berasategi: Jende berria animatuko ez balitz arazo izan liteke, oso justu gabilta jokalaria aldetik eta lesiorik tarteko izango balitz, oso etorkizun beltza izango genuke.

Aurtengo denboraldia ere ezohikoa tokatu zaizue.

A. I: Joan zen denboraldian liga erabat etenda geratu zen. Entrenamenduak utzi behar izan genituen, eta ez genuen aukerarik izan liga amaitzeko. Aurtengo hasiera ere berezia izan da, normalean denboraldia urritik maiatza aldera izaten baita; aurten, berriz, urtarrean hasi dugu denboraldia.

E. B: Ligaren funtzionamendua nahiko antzekoa izan da orokorrean, hala ere, Euskadiko Txapelketa talde bakarrean egin beharrean, bi ligatxotan banatu zuten. Hamabi talde elkarren aurka aritu beharrean, sei eta sei talderen artean bi ligaxka egin zituzten. Guri oso ondo etorri zitzaigun liga horren berandu hastea, urrian oraindik lau baino ez baiginen, eta pixkanaka geroz eta jende gehiagok eman zuen izena.

Urrirako jakinaren gainean



“Jende berria animatuko ez balitz arazo izan liteke. Oso justu gabilta jokalaria aldetik eta lesiorik tarteko izango balitz, oso etorkizun beltza izango genuke”, Estitxu Berasategik adierazi digunez.

ANE IRAZABAL

“Aurtengoa berezia izan da. Normalean denboraldia urritik maiatza aldera izaten da; aurten, berriz, urtarrean hasi dugu denboraldia”

zeundeten momenturen batean liga martxan jartzeko asmoa zegoela?

Leire Furundarena: Nik uste orokorrean ez zela espero aurten denboraldirik izaterik.

E. B: Izena emanda geneukanez, entrenamenduak egiten hasi ginen helburu finkorik gabe, dibertimendu modura. Apurka-apurka jende gehiago animatzen hasi zen, eta denboraldia hasterako taldea osatuta geneukan. Txapelketa bera ohiko moduan izan da, publikorik gabe, hori bai, baina gainontzean ohi bezala.

L. F: Bi partida jokatu eta hurrengoa atsedendia izan da, Covid-19a dela eta partiduren bat jokatzeak aukerarik ezeari, tarte hori izanik beste data bat ezarri ahal izateko asteburu libre horretan.

Covid-19agatik konfinamenduren bat egin behar izan du talde osoak?

L. F: Uste dut bakarrenetariakoak izan garela kasu positiborik izan ez dutenak.

E. B: Jokalariren bati tokatu zaio etxean egotea, baina ez positiboa zelako, baizik eta kontaktu zuzena izan zuelako. Beraz, taldean ez zuen eraginik izan. Etxean egin zituen egun batzuk eta jokatzerantz zuzuli zen.

A. I: Kasu hauetan taldeko bat positibo izateak denak etxera eramatea dakar, eta asteburuan partidurik jokatu ezin izatea. Guri zorionez ez zaigu halakorik egokitu.

Maiatzaren 29an, Usurbil K.E.-ren batzarra

Eskubaloi taldeen bilguneak 2021eko urteko batzar nagusia deitu du maiatzeko azken larunbaterako, hilaren 29rako Sutegin. Lehen deialdia goizeko 11:00etan finkatu du, bigarrena orduerdi berandua, 11:30ean. Gaiok hartuko dituzte ahotan:

■ Adin eta maila guztietako taldeen balorazioa.

■ Hurrengo denboraldirako aurreikusitako den talde eta jokalaria kopurua.

■ Urteko diru sarrerak eta irteerak.

■ Egoera ekonomikoa eta aurreikuspenak.

■ Denboraldi osoan hartutako neurrien azalpena eta balorazioa.

■ Zuzendaritzaren berritzea.

Zumarte Musika Eskolan matrikulatzeko epea ostiral honetan amaituko da

Maiatzaren 24an zabaldu zen Musika Eskolan matrikulatzeko epea eta maiatzaren 28an amaituko da.

Ordutegia presentzialki:

■ Asteartea eta osteguna
10:00-12:30 / 17:30-19:00.

Eskaintza:

■ Musika Txokoa, Musika Mintzaira, tronpeta, tronboia, saxofoia, biolina, perkusioa, klarineta, eskusoinua, trikitixa, panderoa, pianoa, txistua, gitarra, flauta, organoa, abesbatza, talde instrumentalak.

Matrikula nola egin:

■ On-line datuak bete www.zumarte.eus orrian edo dagokion inprimakia eskuz bete eta musika eskolako bulegoan entregatu (Kale Nagusia, 45).

Hobariak:

Hobariak familia ugarietan edo



Hobariak daude familia ugarien edo unitate familiar bereko 3 senide edo gehiago matrikulatuta dauden kasuetan.

ZUMARTE MUSIKA ESKOLA

**“Datuak bete
www.zumarte.eus
web orrialdean
edo inprimakia
bete eta Musika
Eskolako bulegoan
entregatu”**

unitate familiar bereko 3 senide edo gehiago matrikulatuta dauden kasuetan.

Oharrak:

■ Instrumentua ikasten hasten diren artean, tronboia, saxofoia, tronpeta edo biolina ikasten hasten direnei, nahi izanez gero eta ikasleentzat egokiak badira (tamaina eta abar), Zumartek dituen instrumentuak urtebetez utziko zaizkie.

Informazio gehiago jasotzeko:

■ 943 371 594.
■ www.zumarte.eus

Basabi eta Kimuren kontzertua, ekainaren 5ean

Artistetako baten osasun-arazoak tarteko, maiatzaren 15ean izatekoa zen kontzertua atzeratu egin behar izan zuten. Ekainaren 5ean izango da Basabi eta Kimu musika taldeen emanaldia, arratsaldeko 19:00etan Sutegin.

Sarrera, 10 euro

Sarrera eskuratu zutenek joateko aukera izango dute, baina nahi duenak dirua itzultzeko eskaera ere egin dezake kultura@usurbil.eus helbidera idatzita edo 943 371 999 telefonora deituta.

Era berean, aurreko txandarako sarrerarik lortu ez zuenak bigarren aukera hau baliatu ahal izango du. Oraindik ere badira sarrera batzuk salgai usurbilkultura.eus atarian. Prezioa, 10 euro.

Antolatzailea: Jexux Artze Kultur Elkarte.

Lanbide Eskolak STEAM Prestakuntza Osagarria eskainiko du

DBHko gero eta ikasle gehiago ari dira Lanbide Heziketa aukeratzeko, gerora Unibertsitate Ikasketak egin nahi dituztenak. Usurbilgo Lanbide Eskolak ikasle horiei unibertsitaterako bidean prestakuntza osatzeko aukera eman nahi die. Helburua, ikasleen artean STEAM gaitasunak (zientzia, teknologia, ingeniari, artea eta matematika) indartzea da, etorkizuneko unibertsitate-prestakuntzara egokitzeko, ondoren lan mundura igaro ahal izateko.

Batxilergoan nagusiki lantzen diren gaitasunak indartzeko, ikastetxean eskaintzen diren ziklo guztietan astean 6 orduko STEAM errefortzua eskainiko du Usurbilgo Lanbide Eskolak. Kurrikulumez on-



Izena emateko epea maiatzaren 31tik ekainaren 18ra bitartean luzatuko da.

dorengo arloak landuko dira: Robotika eta Programazioa (Arduino, Scratch, Python), Matematika, Fisika, Kimika, Gaztelania eta Filosofia (pentsamendu kritikoa).

Isidro Zaldua ikastetxeko zuzendariak aditzera eman duenez, “STEAM gaitasunak

eta zientzia, teknologia, ingeniari, artea eta matematikako kurrikulum-puntuak landuko dituzten diziplina anitzeko erronkak planteatuko ditugu, errealitatearekin zerkusi zuzena izango dutenak”. Azken finean, “lan-munduak erronka berriei aurre egiteko

gai izango diren teknikariak prestatzea eskatzen digu. Arazo konkretuak konpontzeko gai izateaz gain, egunerokotik haratago planifikatzeko gaitasuna duten eta ibilbide luzeagoko irtenbideak eskaintzeko gai izango diren teknikariak behar dira”, azpimarratu du Zalduak.

Argibideak, Lanbide Eskolan

Maiatzaren 31tik ekainaren 18ra bitartean izango da zikloetan izena emateko epea. Usurbilgo Lanbide Eskolan izena emateko edota edozein zalantza argitzeko, 943 364600 telefonora deitu, adkomunikazioa@lhusurbil.eus helbidera elektronikora mezu bat bidali, edo www.lhusurbil.eus webgunea kontsultatu.

ETXEBIZITZA**Salgai**

Etxebizitza salgai, kale Nagusia 39, udalxte aurrean. 58m (bi logela) eta garaje itxia prezioan barne. 649850515.

91m² pisua salgai Txaramunto kalean. 3 logela, sukaldea, 2 komun, egongela. 11m² terraza, 8m² trastelekua, 24m² garajea erosteko aukera. 678949958.

Etxebizitza salgai Kalezarren: 79m² berriua, 2 gela, komuna, sukaldea, jangela, egongela, harrera. Dena kanpoaldera. Ganbara handia partekatua. 35m² garajea aukeran. 686462705

Alokairuan

Usurbilgo gizonetako bat naiz eta alokairuan pisu bat hartuko nuke Usurbil edo inguruan. 659185107

Alokatzeko etxe baten bila ari naiz. Bi pertsona gara eta txakurra daukagu. 675189500

MOTORRA**Salmenta,****garajeak**

Ezinduentzako motorra salgai. 2018ko abuztuko motorra, gutxi erabilia. 625701616.

Garage bat alokairuan, 22m² Santuenean. 671547567.

Atxegalden garaje bat nahiko genduke alokairuan edo erosteko. 628498326

LANPOSTUAK**Lan eskaintzak**

Emakume bat behar da umeak zaindu eta etxeko garbiketa egiteko; Familia zamarik gabekoa. Haurren zaintzan esperientzia izatea beharrezkoa. Nahiago da euskara ondo menperatzen dakien pertsona izatea. 638738505

Game Masterra behar dugu Quantum Escape Room-en. Gaztea bazara, eta jokoak nahiz ihes gelak gustatzen bazaizkizu bidali CV info@quantum.eus helbidera

Txiribogan asteburuetarako lan-gileak behar dira. Interesatuok hona deitu: 629 951 931.

LANPOSTUAK**Lan eskaerak**

Pertsona helduak, garbiketak, peoi lanak edo pintore laguntzaile moduan aritzeko prest, gizonetako bat naiz. 622747833

Pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest, neska bat naiz. 622747833

Arratsetarako lan bila nabil. Euskalduna naiz, usurbildarra. Haurren zaintzan edo etxeko lanetan aritzeko prest. 61627 3785.

Neska orduka eskaintzen da etxeko lanak egin edota haurrak zaintzeko. Titulu soziosanitarioarekin. 612 433 485.

Neska orduka eskaintzen da etxeko lanetarako edo haurrak zaintzeko. 631 89 49 90.

Adinekoak zaintzeko lan bila nabil. Geriatria ikastaroa egina dut. Orduka nahiz egun osoz lan egiteko prest. 604 349 970.

Nikaraguako neska arduratsu eta ondradua, garbiketa lan eta adinekoen zaintza lanetan aritzeko

erabateko prestasuna. Esperientziaduna. 602 481 854 / anisie-za@gmail.com

Pertsona helduak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest dagoen emakume bat naiz. Ordu-tegi aldetik disponibilitate osoa. 608935674 (Anjela)

Garbiketa lanak egiteko eta pertsona helduak zaintzeko neska bat naiz. Ordukako lana edo interna moduan 603315126.

Orduka edo interna moduan lan egingo nuke pertsona helduak zaintzen, etxeko lanak edo garbiketa lanak egiten 620081572

Interna moduan pertsona helduak zaintzeko prest. 14 urteko esperientzia, erreferentzia onak. Profesionaltasun ziurtagiria. 667907196

BESTELAKOAK

Etxe bateko altzariak saltzen ditut. 600 360 809.

Josteko remalladora Donna 800 salgai. Berria dago, biz-

pahiru aldiz erabilia soilik. Prezioa: 270 euro. 652 702 237 (Zorione).

Filologia ikasketak ditut, ingeleseko klaseak ematen ditut bakarka edo taldean. Maila guztiak. 660845780 / bou-chrahajar@outlook.com

Giltza batzuk galdu dira Zumartegi poligonoan, tren geltokiaren inguruan. Giltzen artean da Opel ikurra duen bat. Topatu baduzu jar zaitze harremanetan: 650 488 094.

Sagarrak txikitzeko egurrezko makina bolantearekin salgai. 678082127 (Aitor)

Sukaldeko Ekonomia oso egoera onean saltzen dut, gutxi erabilia. 678082127 (Aitor)

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburua... Atalluko Garbigunean, doan hartu daitezke. Asteleheneetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00.

**Zorionak Aimar!!**

Maiatzaren 23an egin zenituen 11 urte. Ederki pasa genuen familia eta lagun artean. Hemendik ere muxu handi bat bidali nahi dizugu denen partez!

**Zorionak Edurne eta Ane!**

Maiatzaren 27an izango da zuen urtebetetzea. Ondo pasa eta muxu handi handi bat etxekoan partez.

**Zorionak Elsa!**

Maiatzaren 26an izan da zure urtebetetzea. Zorionak eta muxu handi bat guraso, anai eta iloben partetik.

Heriotzak**Joxe Mari****Erauntzetamurgil****Zinkunegi**

Maiatzaren 22an

hil zen,

85 urterekin

**Goardiako farmaziak****Osteguna 27** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte**Ostirala 28** GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte**Larunbata 29** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte**Igandea 30** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte**Astelehena 31** ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte**Asteartea 01** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte**Asteazkena 02** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte**Gainontzeko datak** www.cofgipuzkoa.com web orrian dituzue ikusgai.**Osteguna 03** ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte**Ostirala 04** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte**Larunbata 05** ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte**Igandea 06** ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak ireki-
ta egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
ETXEBARRIA AZUETA, AITZIBER
Andre Kalea, 48 "Cuevas"
943 55 17 93

Agenda maiatza

28 ostirala

- **"Bertako sendabelarrak" tailerra** 18:00-20:00, Santuenea Elkarte. Izen-ematea: 670 027 731.
- **Presoen eskubideen aldeko elkarretartzea** 20:00etan Mikel Laboa plazan.

29 larunbata

- **"Usurbil astindu" zikloa** 11:00etan Potxoenean. Antolatzaileak: Sortu eta Ernai.
- **Usurbil K.E.-ren urteko batzarra** Sutegin Lehen deialdia 11:00etan.

30 igandea

Ekainean arratsalde zabalduko dute KzGunea

Maiatzean goizez ari dira zabaltzen Usurbilgo KzGunea, 9:00-13:00 artean. Ekainaren 1etik aurrera 16:00-20:00 artean irekiko dute. Honatx KzGunea datozen ikastaroen berri.

Ikastaroak

- Maiatzak 28-31, 09:00-11:00. "Sortu bideoak zure gustukoaren irudiekin".
- Ekainak 1-4, 16:00-18:00. "Ofimatika tresnak-LibreOffice".
- Ekainak 15-24, 16:00-18:00. "Kudeatu zaituz Google aplikazioekin".
- Ekainak 25-30, 16:00-18:00. "Facebook. Konektatu lagun eta senideekin".

"Irudipuinak" saioa aurrerago egingo da

Udal liburutegiak maiatzaren 27rako iragarria zuen *Irudipuinak* emanaldia bertan behera utzi behar izan dute. Halere, "aurrerago gonbidatuko ditugu Ixabel Agirresarobe eta Mattin Sutegi liburute-gira. Ohiko kanalen bidez emango dugu aditzera", Sutegitik iragarri dutenez.



KzGuneak hainbat ikastaro iragarri ditu datozen egunetarako.

Informazio gehiagorako:

Kale Nagusia, 37
943 023 684
tutor.usurbil@kzguna.net
kzguna.eus

Izen-ematea

Aginagako txokoetan

San Praixku Guraso Elkarteak ekainaren 21etik uztailearen 2ra antolatu dituen txokoetan izen emateko aukera izango da maiatzaren 31ra arte.

Informazio gehiagorako:

gurasoelkartea@aginaga.eskolatxikiak.eus

Datozenak

Aitzagaren berrantolaketa "Usurbil astindu" zikloan

Ezker abertzaleko komunitatea saretu eta indartzeko Sortu eta Ernai antolaturiko "Usurbil astindu" zikloaren hurrengo hitzorduak asteotan:

Maiatzak 29, larunbata

- 11:00 "Aitzaga Elkartearen berrantolaketa eta kultur taldearen eraketa" Potxoenean.

Ekainak 12, larunbata

- 11:00 "Independentziaren aldeko indarrak batzen" mahai ingurua Sutegin.
- **Gidaria:** Maider Lazkano. Parte hartzaileak: Ainhoa Etxaide eta Joseba Permach.

Izen ematea aurrez helbide honetan:

<https://labur.eus/ce00V>

"Sagastien udako kimaketa, gaitzak eta izurriteak"

Alkartasuna Kooperatibaren ikastaroa ekainaren 4an egingo da, 15:30-18:30 artean Potxoenean. Aitor Etxeandiak gidatuko duen hitzorduan inausketa-praktikak egingo dituzte. Izen-ematea doan da baina ekainaren 2ra arte dago inskripzioa osatzeko epea: usurbilkultura.eus alkartasuna.eus 943 361 114.

Otar-Goxo
Elkargaiak

Zubiaurrena, nº2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil

Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

RPS: 28/17

20170
USURBIL

Zuen
publizitatea
hemen

☎ 943 360 321
publizitatea@noaua.eus



ZIRIMARA

Gelditu gabe jardunean

IZEN EMATEA: online ekainak 7-18

<https://forms.gle/gQa4UkzFh8p7PaPE7>



Izen ematea burutzeko ordainketa egin behar da Ikastolako
ES45 3008 0259 1121 8354 1214 kontu korrontean
eta agiria bidali eskolakirola@udarregi.eus helbidera

Oharrak:

• Eskola Kirolean parte hartzeko derrigorrezkoa da Oiardo Kiroldegiko bazkide izatea,
izan norbanako modalitatean edo familia modalitatean.

• Udalak egoera zaugarrian dauden familientzako diru laguntza deialdi bat atera du.

Kiroldegiko abonamendurako hobariak ere baditugu. Guzti honetaz informazioa Udalaren webgunean aurki dezakezue.

ATE IREKIAK

USURBIL

- EKAINAK 1 eta 8 (16:30-18:30) HH5/LH1/LH2
- EKAINAK 3 ETA 10 (16:30-18:30) LH 3

ZUBIETA

- EKAINAK 2 eta 9 (16:30-18:00)

AGINA

- EKAINAK 1 eta 8 (16:45-18.15)

LH 1-2ko ESKAINTZA

Asteko saioak. 1 edo 2 (astearte eta ostegunak)

- Jolas hezi programa •Psikomotrizitatea
- Natur jarduerak • Saio bereziak
- Famili planak

LH 3 - 4ko ESKAINTZA

Asteko saioak. 1 edo 2 (astearte eta ostegunak)

- Jolasak • Kirol alternatiboak
- Talde kirolak • Banakako kirolak
- Natur jarduerak • Saio bereziak •Famili planak

GELDITU GABE JARDUNEAN!



noqua



IMFPB USURBIL OLHUI

Oinarrizko Lanbide Heziketa



sukaldaritza
eta jatetxea



ile-apainketa
eta estetika



Usurbilgo Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

AURREMATRIKULA

Epea Maitzaren 31tik ekainaren 18ra (biak barne).

Tokia Atallu. Zanpiura, 3

Telefonoa 943 36 04 65

Posta lhi@usurbil.eus

aurrematrikulazioa webgunetik egiteko aukera!
olh.usurbil.eus

- » 15-17 urte bitarteko gazteak
- » DBH Graduatuetan
- » Sarrera zuzena erdi-mailako zikloetara
- » Lan - munduratzeari. Profesionaltasun ziurtagiria, 1